



GALDERAK ETA ERANTZUNAK

1. Zein da administrazioarekiko harremanak bide telematikoz izatera behartzen duen araudia?
2. Zein dago behartuta administrazioarekiko harremanetan bitarteko telematikoak erabiltzera?
3. Zein hartzen da jakinarazpen datatzat zergapekoak eta ordezkariak egun desberdinetan irekitzen dutenean postontzia jakinarazpena irakurtzeko?
4. Zer ondorio ditu Gipuzkoako Foru Ogasunarekiko harremanak telematikoak izateko obligazioak?
5. Zertan datza jakinarazpen elektronikoa GFAn?
6. Nola sartzen da jakinarazpen elektronikoan?
7. Nor sar daiteke jakinarazpenean?
8. Nork jasotzen du jakinarazpenaren abisua?
9. Zein helbide elektronikotara bidaltzen da jakinarazpenaren abisua?



GALDERAK ETA ERANTZUNAK

1. Zein da administrazioarekiko harremanak bide telematikoz izatera behartzen duen araudia?

Ekainaren 30eko [320/2017 Foru Agindua](#), Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen foru Administrazioarekiko harremanak bide elektronikoz izateko obligazioa arautzen duena. (*)

(*) Urtarrilaren 4ko 1/2016 Foru Agindua indargabetu du, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen foru Administrazioarekiko harremanak bide elektronikoz izateko obligazioa arautzen duena.

[Itzuli hasierara](#)

2. Zein dago behartuta administrazioarekiko harremanetan bitarteko telematikoak erabiltzera?

Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru Administrazio tributarioarekin harremanak bitarteko elektronikoz bidez izateko behartutako pertsona eta entitateak honako hauek dira:

1. Pertsona juridikoak.
2. Nortasun juridikorik gabeko erakundeak (ondasun erkidegoak, jabeen erkidegoak, sozietate zibilak,...).
3. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunak, establezimendu iraunkor bidez jarduten dutenean, eta, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga arautzen duen 16/2014 Foru Arauak 24.2 eta 38. artikuluetan aipatzen dituen kasuetan daudenean.
4. Profesional izaera dutenak, beren izenean eta beraiek ordezkatzeko dituztenen izenean jarduten direnean (nahiz eta azken horiek behartuta ez egon).
5. Administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun baten ordezkari direnak.
6. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 14. artikuluko 2. apartatua aipatzen dituen gainerako subjektuak.

[Itzuli hasierara](#)

3. Zer ondorio ditu Gipuzkoako Foru Ogasunarekiko harremanak telematikoak izateko obligazioak?

Hauexek dira berekin:



- [Zerga aitorpenak](#) Gipuzkoatariaren bidez aurkezteko obligazioa.
- Idatziak Gipuzkoatariaren dagoen [Erregistro Elektronikoaren](#) bidez aurkezteko obligazioa.
- Egoitza elektronikoa argitaratzen diren prozeduretan [jakinarazpen elektronikoak jasotzeko obligazioa](#).

[Itzuli hasierara](#)

4. Zertan datza jakinarazpen elektronikoa GFAn?

Pertsona jakin bati zuzenduta dagoen jakinarazpena argitaratzen da [jakinarazpen elektronikoaren postontzian](#). 10 eguneko epea dago, argitaratzen denetik aurrera, jakinarazpena irekitzeko. 10 egun horietan ez bada irekitzen, jakinarazpena eginda dagoela jotzen da.

[Itzuli hasierara](#)

5. Nola sartzen da jakinarazpen elektronikoa?

Sinadura elektronikoa erabiliz (izan [pasahitz operatiboa](#), izan [sinadura duen ziurtagiria](#))

[Itzuli hasierara](#)

6. Nor sar daiteke jakinarazpenean?

Jakinarazpena jaso behar duena, legezko ordezkaria edo ordezkari-ahalmenetan [3. edukia](#) markatua duen zerga ordezkaria. Ikuskaritzako espedienteen kasuan, [4. edukiak](#) egon behar du markatua.

[Itzuli hasierara](#)



7. Nork jasotzen du jakinarazpenaren abisua?

Jakinarazpenean sar daitezkeen pertsona guztiei abisatzen zaie hartzaileak jakinarazpen bat daukala jakinarazpen elektronikoen postontzian.

[Itzuli hasierara](#)

8. Zein helbide elektronikotara bidaltzen da jakinarazpenaren abisua eta nola jakinarazten eta aldatzen da helbide hori?

1. Jakinarazpenaren hartzailea bada: aitorpen hauetan emandako helbidera:
 - 109 Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga
 - 036 Zentsu aitorpena
 - 030 Jarduera ekonomikorik ez duten pertsona fisikoen zentsu aitorpena
 - 200 Sozietateen gaineko zerga

Edo [Harremanetarako datu fiskalak](#) aplikatiboaren bidez (Gipuzkoataria)

Aurrez emandako helbidea azaldutako bide horiek erabiliz alda daiteke.

2. Legezko ordezkariak badira: legezko ordezkariak erroldan adierazitako e-posta. Helbide elektronikotara hori Gipuzkoataritik aldatu daiteke, "[Ordezkarien kudeaketa](#)" atalean sartuta.
3. Ordezkarik profesionalak badira: profesional moduan alta hartzeko garaian ordezkariak adierazitako e-posta. Edozein unetan aldatu daiteke helbide elektronikoa, [Gipuzkoataritik](#). Horretarako, "profesionalen gunea" izeneko atalera joan, eta bertan "Profesionalaren eta langileen datuak" aukeratu.
4. Ordezkarik ez-profesionalak badira: ordezkariak erroldan adierazitako e-posta. Helbide elektronikotara hori Gipuzkoataritik aldatu daiteke, "[Ordezkarien kudeaketa](#)" atalean sartuta.

[Itzuli hasierara](#)

9. Zein hartzen da jakinarazpen datatzat zergapekoak eta ordezkariak egun desberdinetan irekitzen dutenean postontzia jakinarazpena irakurtzeko?

Baimendutako pertsonetako edozein jakinarazpenean lehen aldiz noiz sartzen den, hori izango da jakinarazpen data.

[Itzuli hasierara](#)